



# Mendaroko UDAL BULETINA

2025eko abendua eta  
2026ko urtarrila

(más abajo en castellano)



## **Aurkibidea**

### **Inbertsio errealetarako partida ia laukoiztu egingo da Mendaroko Udalaren 2026ko aurrekontuetan.....3-4**

*Azaroko plenoan Mendaroko Udaleko zinegotzi guztiek ahobatez onartu zuten 4.486.792,99 euroko 2026ko aurrekontua Mendaroko Udalerako; iazkoa baino %24 handiagoa.*

### **Aldundiak aurrera egin du Alzola eta Mendaro arteko bidegorria eraikitzeko proiektuan.....5-6**

*Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako departamentua lanean ari da dagoeneko 1,7 kilometroko bizikleta- eta oinezko-ibilbidea diseinatzeko, N-634 eta AP-8 errepideen arteko tartean, hiru metroko zabalerarekin*

### **2025ean Mendaroko herriak jasan zuen bandalismo ekintzen balantzea.....7-8**

*Guztira 14 bandalismo ekintza izan ziren 2025 urtean*

### **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epeak eta informazio orokorra.....9-10**

*Laguntza horien helburua gizarte-kalteberatasuneko egoerak prebenitzea, arintzea edo saihestea da*

### **“Barrakudaren altxorra” filmaren proiektioarekin hasi zen lehenbizikoz antolatu den Zinema euskaraz zikloa.....11**

*Zinema euskaraz zikloaren helburua gaztetxo eta gazteentzako eskaintza gehitzea da*

### **Abenduaren 29an jarri zen martxan Herriko Enparantzako ibilgailuen sarrera ordutegi berria.....12**

*Sei hilabeteko proba pilotu bat egingo da, ordutegi berriak izan ditzakeen abantaila eta desabantailak ezagutzeko eta epe horren ostean hartuko da behin betiko erabakia*

### **Intxaurbakoitzako aldapan kilikolo zeuden zenbait harkaitz erretiratzeko lanak egin ditu Mendaroko Udalak.....13**

*Aurrera begira arrisku egoera hauek ekiditeko asmoarekin, inguru horretako azterketa geotekniko bat eskatuko du Mendaroko Udalak, herritarrentzat inguru horretako segurtasuna bermatzeko*

### **Mendaroko Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu du Debako Gurutze Gorriarekin herritarrei arreta eta informazio zerbitzuak eskaintzeko.....14**

*Zerbitzua hileko lehen astelehenean eskainiko da, 09:15etik 13:00etara, Mendaroko udaletxeko 3. Solairuko bulego batean*



## **Inbertsio errealetarako partida ia laukoiztu egingo da Mendaroko Udalaren 2026ko aurrekontuetan**

*Azaroko plenoan Mendaroko Udaleko zinegotzi guztiek ahobatez onartu zuten 4.486.792,99 euroko 2026ko aurrekontua Mendaroko Udalerako; iazkoa baino %24 handiagoa.*

Enetz Ezenarro alkateak adierazi duenez, “onartutako aurrekontuak agintaldi honetako erronka garrantzitsuak modu ausart eta errealistan jasotzen ditu; gure helburua da Mendarok behar dituen proiektuak modu eraginkorrean gauzatzea herritarren ongizatean eragina izan dezaten”.

### **DIRU-SARRERAK**

Ohiko moduan, Foru Aldundiaren Udalak Finantzatzeko Foru Funtsa izango da diru iturri nagusia 2026an ere. Mendarok 1.927.465,90 euro jasoko ditu bide horretatik, iaz baino 125.000 euro gehiago.

### **GASTUAK ETA INBERTSIOAK**

Inbertsio errealen atalean eman da aldaketarik handiena 2025eko aurrekontuekin alderatuta: 353.500 eurotik 1.319.774,05 eurora igaro da, ia laukoiztuz.

Honako hauek izango dira proiektu nagusiak:

#### **I. Jubilatuen taberna eta egoitzaren erreforma**

-600.000 euro 2026an (2025eko 150.000 euroei gehituta).

-Lanak 2025eko azaroan hasi ziren eta 2026ko uztailean amaitzea espero da.

-Ezenarrok adierazi du: “Proiektu honek gure herriko komunitate bizitza indartuko du; espazio zabalago eta polibalenteago batek jubilatuei, eta oro har, mendaroar nahiz bisitan datozkigunei, kulturarako eta sozializatorako baliabide garrantzitsua eskainiz”.

## **2. Herriko kale argiteria osoa LED teknologiarara aldatzea**

-507.274,05 euro 2026an.

-Udalak Espainiako ministerioko IDEA trantsizio energetikorako institutuaren mailegu bat jasoko du zenbateko berarekin, interesik gabe 10 urtean itzultzeko. Aurreztuko dugun energiaren balioa mailegua itzultzera bideratuta, udalarentzat kosturik gabeko operazioa izango da.

-Alkatearen hitzetan: “Energia aurrezpena eta efizientzia nahitaez bultzatu beharreko printzipioak dira bizi ditugun trantsizio energetiko eta klima larrialdi garaiotan. Globalki pentsatu eta lokalki jarduteko dioen leloa geure eginez mendaroarrok ere gure aletxo jarri nahi dugu bizimodu jasangarri batera bidean”.

Horiez gain, inbertsio errealei dagokienean, udalaren lokal komertzial bat Etxebidek kudeatutako alokairurako etxebizitza bezala egokitzeke 80.000 euro, hirigintzako obra txikietarako 50.000 euro eta landaguneko inbertsioetarako 30.000 euro aurreikusten ditu onartutako aurrekontuak.

Eta inbertsioetatik aparte, kultura eta gizartegintzan aurreikusitako gastuek ere igoera aipagarriak dituzte 2026ko aurrekontuetan. Kulturari (euskara, jaiak eta azoka, hezkuntza, kultur agenda, kirola...) dagokionean, 469.635 eurotik 518.215 eurorako igoera aurreikusi da, hau da, 2025ekoa baino %10 handiagoa. Eta gizartegintzako gastuari dagokionez, berriz, 549.450 eurotik 573.900 eurora pasako da, hau da, 2025ekoarekiko %4,5eko igoera. Modu honetan iazko aurrekontuetako babes sozialeko neurriak egonkortzeaz gain (etxez-etxeko laguntza %71 eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza %33 igo ziren 2025ean), besteak beste, berdintasunerako partida 8.000 eurotik 20.000 eurora igoko da, eta gure nagusien buru osasuna eta autonomia bultzatzeko martxan jarritako Burulogy bezalako programa arrakastatsua ere indartu nahi da gastua 12.000 eurotik 20.000 eurora igoz. “Herriko azpiegiturak zaindu eta herritarren beharretara egokitutako berriak eraikitzea ezinbestekoa dela jakinik, oso argi daukagu, baita ere, kultura eta gizartegintza direla herritarren ongizatean aurrera egin eta mendaroarren komunitatea elkartu eta indartzeko dauzkagun tresna indartsuenak” alkatearen hitzetan. “Eta horretan gabiltza kosta ahala kosta”.



## **Aldundiak aurrera egin du Altzola eta Mendaro arteko bidegorria eraikitzeko proiektuan**

*Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako departamentua lanean ari da dagoeneko 1,7 kilometroko bizikleta- eta oinezko-ibilbidea diseinatzeko, N-634 eta AP-8 errepideen arteko tartean, hiru metroko zabalarekin.*

Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatu Felix Urkolak informazio-bilera bat egin zuen Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagarekin eta Mendaroko alkate Enetz Ezenarrokekin, Altzola – Mendaro bidegorriaren proiektuaren aurrerapenen berri emateko eta sailak bizikleta- eta oinezko-ibilbide horren etorkizuneko trazadura bi udalerrien artean partekatzeko.

Bileran, Urkolak azaldu zuen departamentua dagoeneko lanean ari dela proiektuan, eta laster dokumentu teknikoa idatziko dutela, eraikuntza-soluzioak eta trazaduraren ahokadurak zehazteko.

Bizikletentzako eta oinezkoentzako bidearen trazatua batez ere N-634 errepidearen eta AP-8 autobidearen artean egitea aurreikusten da, bi bideen arteko tartean. Ibilbideak 1,7 kilometro inguruko luzera eta hiru metroko zabalera izango du, eta horrek erabilera eroso ahalbidetuko die oinezkoei zein txirrindulariei.

Urkolak hasierako fase honetan aztertzen ari diren alderdi nagusietako batzuk zehaztu zizkien udal arduradunei, hala nola trazadura Altzola auzoko sarreran sartzea, errepidea gurutzatzeko puntu seguruak zehaztea eta Elgoibarren trenaren trazadura zaharrarekin lotzea.

Diputatuak nabarmendu zuen proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren estrategiaren barruan dagoela, lurraldeko bidegorrien sarea zabaldu eta finkatzeko, udalerriak konektatuz eta eguneroko joan-etorri osasungarriagoak eta iraunkorragoak erraztuz. Halaber, Elgoibarko eta Mendaroko udalekiko lankidetzaz goraipatu zuen, modu koordinatuan aurrera egiteko.

### **Autobus geltokiak**

Bilera horretan, halaber, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuak laster egin nahi dituen bi jarduketaz hitz egin zen, autobus-geltokiak dauden bi puntu hobetzeko eta egokitzeko. Bat Elgoibarren, Deba kalean (Mupem), eta bestea Mendaron, Azpilgoeta parean. Horrela, geltokietarako oinezkoentzako sarbide segurua hobetu nahi da, baita itxarongunea bera errepidearen inguruko espazio seguru gisa egokitzea ere.



## **2025ean Mendaroko herriak jasan zuen bandalismo ekintzen balantzea**

*Guztira 14 bandalismo ekintza izan ziren 2025 urtean*

Hauek dira 2025ean Mendaroko herriak jasan zituen bandalismo ekintzen balantzea:

- Padel eta frontoiko erreserbak egiteko zerraila manipulatu eta hondatu (2 aldiz)**
- Ospitalerako igogailuetako pasareletan zuloak (2 aldiz)**
- Trinitate parkeko iturria apurtu**
- Igogailuko esku banda apurtu**
- Udaletxe ondoko atea apurtu**
- Udaletxe ondoko pibotea hondatu**
- Trinitate elizaren arkupean zaborra lurrean botata utzi**
- Zuhaiztetako gabonetako argiak apurtu**
- Zuhaitz bat Herriko Enparantzan bota**
- Ikastolako patioko komun bat apurtu**
- Frontoiko aldageletako esku lehorgailu bat apurtu**
- Frontoiko baranda bat apurtu**

## **Guztira 14 bandalismo ekintza izan ziren 2025 urtean.**

Mendaroko Udalak gaitzespenik irmoena agertu nahi du guztion baliabideak horrela hondatzen dituztenen aurrean. Ezin da horrelako jarrerarik inola ere onartu.

Ez dauka inongo zentzurik herritar guztion diruarekin ordaintzen diren eta guztion onurarako diren azpiegiturak horrela tratatzeak.

Mendaroko Udalak dei egiten die herritarrei guztion ondarea guztion artean zaintzeko, eta jokaera antisozial hauek baztertzeko.

**GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK**  
**EUSKADI**

ZERENTZAKO DIRA?	NORENTZAT DIRA?	NON ESKATU?
<ul style="list-style-type: none"> <li>Alokairua edo hipoteka</li> <li>Argia, gasa, ura</li> <li>Osasun gastuak</li> <li>Oinarrizko premiak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Udalean erroldatutakoak</li> <li>Baliabide nahikorik ez dutenak</li> <li>Gizarte bazterketa arriskuan</li> </ul>	<p>ZURE UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK</p>

**INFORMA ZAITEZ ETA ESKATU ZURE GLL**  
[www.euskadi.eus/gizarte-larrialdietarako-laguntzak](http://www.euskadi.eus/gizarte-larrialdietarako-laguntzak)

## Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzeko epeak eta informazio orokorra

*Laguntza horien helburua gizarte-kalteberatasuneko egoerak prebenitzea, arintzea edo saihestea da*

### Zer dira Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Larrialdietarako Laguntzak?

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL) unean uneko prestazio ekonomikoak dira, gastu espezifikoak (arruntak edo apartekoak) estaltzeko nahikoa baliabide ez duten eta gizarte-bazterkeriako egoera bat eragin edo larriagotu dezaketen pertsonen eta familien laguntzeko direnak.

### Helburu nagusia

Laguntza horien helburua gizarte-kalteberatasuneko egoerak prebenitzea, arintzea edo saihestea da, hala nola alokairua ordaintzeko zailtasunak, energia-gastuak, osasuna edo eskura dauden baliabideekin artatu ezin diren oinarrizko premiak.

### Ezaugarri orokorrak

Aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira (ez dira hileroko behin eta berriz

ematen).

Baliabide nahikorik ez duten pertsoneri edo bizikidetz-unitateei zuzenduta daude. Irizpide sozial eta ekonomikoen arabera ematen dira, eta udalerrri edo lurralde bakoitzean eskumena duten gizarte-zerbitzuek balioesten dituzte irizpide horiek.

### **Nork eska ditzake**

Oro har, honako hauek eska ditzakete:

-Udalerrian erroldatuta daude eta udalerrian bizi dira (ezarritako gutxieneko iraupenarekin).

-Bizikidetz-unitate independente baten parte dira.

-Ez dute presako edo funtsezko gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik.

Laguntza horiek ez dira eskubide automatikoa, baizik eta inguruabarren eta administrazio publiko eskudunek egindako balorazio sozialaren arabera ematen dira.

### **ESKABIDEAK AURKEZTEKO DATAK**

**1. HIRUHILEKOA** **2026/02/02 - 2026/02/28**

---

**2. HIRUHILEKOA** **2026/05/04 - 2026/05/09**

---

**3. HIRUHILEKOA** **2026/07/13 - 2026/08/14**

---

**4. HIRUHILEKOA** **2026/11/02 - 2026/11/30**

---



## **“Barrakudaren altxorra” filmaren proiektioarekin hasi zen lehenbizikoz antolatu den Zinema euskaraz zikloa**

*Zinema euskaraz zikloaren helburua gaztetxo eta gazteentzako eskaintza gehitzea da*

Arno Guraso elkarteak Mendaroko Udalarekin batera euskarazko zinema zikloa antolatu du lehenengo aldiz; negu denboraldian, igandetan, beste lau film ikusi ahal izango dira San Agustin Kulturgunean.

Urtarrilaren 25ean eman zitzaion hasiera zinema zikloari: arratsaldeko 17:00etan “Barrakudaren altxorra” filma ikusi ahal izan zen San Agustin Kulturgunean.

Zinema euskaraz zikloaren helburua gaztetxo eta gazteentzako eskaintza gehitzea da. Horrela, haurrentzako hiru film programatu dira eta beste bi, berriz, adin guztientzat.

Zinemarako sarrera doakoa izango da ikusle guztientzat; izan ere, antolatzaileek ez dute nahi dirua traba izaterik euskarazko zinemaz gozatu ahal izateko.

Hurrengo 4 filmak hauek izango dira: “Irabazi arte!” (5. Denboraldiko lehen atala), otsailaren 1ean; “Hartz-atzapar kanpamendua”, otsailaren 8an; “Lagunak erreskatera”, otsailaren 15ean; eta “Minecraft”, otsailaren 22an.



## **Abenduaren 29an jarri zen martxan Herriko Enparantzako ibilgailuen sarrera ordutegi berria**

*Sei hilabeteko proba pilotu bat egingo da, ordutegi berriak izan ditzakeen abantaila eta desabantailak ezagutzeko eta epe horren ostean hartuko da behin betiko erabakia*

Azaroaren 26an Udaletxean egindako bilera informatiboan azaldu zen moduan Herriko Enparantzarako ibilgailuen sarrerak ordutegi berria izango du. Ordutegi berria abenduaren 29an jarri zen martxan.

Lanegunetan 8:00-12:30 bitartean ibilgailuen enparantzarako sarrera irekita egongo da eta ordutegi horretatik kanpo itxita. Jaiegunetan, aldiz, ibilgailuen sarrera itxita egongo da egun guztian zehar.

Sei hilabeteko proba pilotu bat egingo da, ordutegi berriak izan ditzakeen abantaila eta desabantailak ezagutzeko eta epe horren ostean hartuko da behin betiko erabakia.

Neurri hau 2024ko maiatzetik azarora egin zen Kaleak DenONAK, Mendaroko espazio publikoen inguruko parte-hartze bidezko planean jasotzen da. Ibilgailuen joan-etorriak murriztuta Herriko Enparantza guztiontzat leku lasaiago eta seguruago bat bilakatu nahi da, Mendaroko bizitza soziala garatzeko eta indartzeko funtsezko espazio bezala.



## **Intxaurbakoitzako aldapan kili-kolo zeuden zenbait harkaitz erretiratzeko lanak egin ditu Mendaroko Udala**

*Aurrera begira arrisku egoera hauek ekiditeko asmoarekin, inguru horretako azterketa geotekniko bat eskatuko du Mendaroko Udalak, herritarrentzat inguru horretako segurtasuna bermatzeko*

Azken urteetan haizearekin, AP-8 autopistatik zintzilik zeuden zuhaitzen adarrak erori izan dira, errepidezko Azpilgoeta auzorako sarrera nagusienetako batean arrisku handiko egoerak sortuz.

Iaz Mendaroko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, egoera txarrean zeuden hainbat zuhaitz adar moztu zituen inguru horretan.

Baina haizeteek zuhaitzen sustraiak eta hauen inguruko harkaitzak ere mugitu izanak, lan berriak egitera bultzatu du Mendaroko Udala.

Aurrera begira arrisku egoera hauek ekiditeko asmoarekin, inguru horretako azterketa geotekniko bat eskatuko du Mendaroko Udalak, herritarrentzat inguru horretako segurtasuna bermatzeko.



# **Cruz Roja Gurutze Gorria**

## **Mendaroko Udalak lankidetza-hitzarmena sinatu du Debako Gurutze Gorriarekin herritarrei arreta eta informazio zerbitzuak eskaintzeko**

*Zerbitzua hileko lehen astelehenean eskainiko da, 09:15etik 13:00etara,  
Mendaroko udaletxeko 3. Solairuko bulego batean*

Mendaroko Udalak eta Debako Gurutze Gorriak lankidetza-hitzarmen berria sinatu dute, udalerriko herritarrei arreta eta informazio zerbitzuak eskaintzeko eta egoera kalteberan dauden pertsonen oinarrizko beharrak estaltzeko.

Zerbitzua hileko lehen astelehenean eskainiko da, 09:15etik 13:00etara, Mendaroko udaletxeko 3. Solairuko bulego batean.

Eskainiko diren zerbitzuak:

- Oinarrizko premiei arreta (elikagaiak eta higiene produktuak erosteko txartelak/kupoiak, garraio txartelak, haurrei laguntza berezia).
- Etxeko horniduren ordainketa eta aholkularitza energetikoa.
- Lana bilatzeko laguntza eta bideratzea.
- Laguntza-produktuen mailegua (gurpil-aulkiak, makuluak, taka-takak...).
- Prestakuntza eta sentsibilizazio tailerrak (energia, elikadura, osasun emozionala...).

Udalak espazioa lagako du eta urteko 500 euroko dirulaguntza emango dio Gurutze Gorriari.



# **BOLETÍN MUNICIPAL**

## **de Mendaro**

**Diciembre de 2025 y  
enero de 2026**

# Índice

## **La partida de inversiones reales se cuadruplicará en los presupuestos del Ayuntamiento de Mendaro para 2026.....17-19**

*En el pleno de noviembre todos los concejales del Ayuntamiento de Mendaro aprobaron por unanimidad un presupuesto de 2026 para el Ayuntamiento de Mendaro de 4.486.792,99 euros, un 24% superior al del año pasado*

## **La Diputación avanza el proyecto del bidegorri entre Altzola y Mendaro.....20-21**

*El departamento de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial trabaja ya en el diseño de un itinerario ciclista y peatonal de 1,7 kilómetros por el espacio intermedio entre la N-634 y la AP-8, con una anchura de tres metros*

## **Balance de los actos de vandalismo que el pueblo de Mendaro ha sufrido en 2025.....22-23**

*En total, fueron 14 actos de vandalismo en el año 2025*

## **Información general y plazos para solicitar las Ayudas de Emergencia Social.....24-25**

*El objetivo de estas ayudas es prevenir, paliar o evitar situaciones de vulnerabilidad social*

## **La primera edición del ciclo Zinema euskaraz comenzó con la proyección de la película “Barrakudaren altxorra”.....26**

*El objetivo del ciclo Zinema euskaraz es ampliar la oferta dirigida a niños, niñas y jóvenes*

## **El 29 de diciembre se puso en marcha el nuevo horario de la entrada de vehículos a Herriko Enparantza .....27**

*Se realizará una prueba piloto de seis meses para ver las ventajas e inconvenientes que puede tener el nuevo horario y tras ese plazo se tomará la decisión definitiva*

## **El Ayuntamiento de Mendaro ha retirado algunas rocas que se encontraban en la cuesta de Intxaurbakoitza.....28**

*Con el objetivo de evitar estas situaciones de riesgo de cara al futuro, el Ayuntamiento de Mendaro solicitará un estudio geotécnico de la zona para garantizar la seguridad de la población en la zona*

## **El Ayuntamiento de Mendaro firma un convenio de colaboración con Cruz Roja de Deba para ofrecer servicios de atención e información a la ciudadanía.....29**

*El servicio se ofrecerá el primer lunes de cada mes, de 09:15 a 13:00, en el Ayuntamiento de Mendaro en una oficina de la 3ª planta*



## **La partida de inversiones reales se cuadruplicará en los presupuestos del Ayuntamiento de Mendaró para 2026**

*En el pleno de noviembre todos los concejales del Ayuntamiento de Mendaró aprobaron por unanimidad un presupuesto de 2026 para el Ayuntamiento de Mendaró de 4.486.792,99 euros, un 24% superior al del año pasado*

El alcalde, Enez Ezenarro, ha afirmado que "el presupuesto aprobado recoge de forma valiente y realista los importantes retos de este mandato; nuestro objetivo es llevar a cabo de forma eficaz los proyectos que Mendaró necesita para que afecten al bienestar de la ciudadanía".

### **INGRESOS**

Como es habitual, el Fondo Foral de Financiación de los Ayuntamientos de la Diputación Foral será también su principal fuente de ingresos en 2026. Mendaró recibirá 1.927.465,90 euros por esta vía, 125.000 euros más que el año pasado.

### **GASTOS E INVERSIONES**

En el apartado de inversiones reales se ha producido la mayor variación respecto a los presupuestos de 2025, pasando de 353.500 euros a 1.319.774,05 euros, casi cuadruplicándose.

Los principales proyectos serán los siguientes:

#### **I. Reforma del bar y residencia de jubilados**

-600.000 euros en 2026 (más 150.000 euros en 2025).

- Las obras comenzaron en noviembre de 2025 y se espera que finalicen en julio de 2026.

- Ezenarro ha señalado: "Este proyecto fortalecerá la vida comunitaria de nuestro pueblo; un espacio más amplio y polivalente a los jubilados, y en general a los mendareses y a los que nos visiten, ofreciendo un importante recurso para la cultura y la socialización".

## **2. Traspase de todo el alumbrado urbano del pueblo a tecnología LED**

-507.274,05 euros en 2026.

-El Ayuntamiento recibirá un préstamo del instituto para la transición energética IDEA del ministerio español por el mismo importe, a devolver en 10 años sin intereses. Orientado a devolver el préstamo el valor de la energía que nos ahorraremos, será una operación sin coste para el ayuntamiento.

-En palabras del alcalde: "El ahorro y la eficiencia energética son principios ineludibles en los tiempos de transición energética y emergencia climática que vivimos. Haciendo nuestro lema de pensar globalmente y actuar localmente, los mendareses también queremos aportar nuestro granito de arena hacia una vida sostenible".

En cuanto a las inversiones reales, el presupuesto aprobado contempla 80.000 euros para la adecuación de un local comercial municipal como vivienda de alquiler gestionada por Etxebide, 50.000 euros para obras menores de urbanización y 30.000 euros para inversiones en el medio rural.

Además de las inversiones, los gastos previstos en cultura y obra social también registran incrementos significativos en los presupuestos de 2026. En cuanto a la cultura (euskera, fiestas y ferias, educación, agenda cultural, deporte...), se prevé una subida de 469.635 euros a 518.215 euros, lo que supone un 10% más que la de 2025. Y en cuanto al gasto en Acción Social, pasará de 549.450 euros a 573.900 euros, lo que supone un incremento del 4,5% respecto al de 2025. De esta forma, además de estabilizar las medidas de protección social de los presupuestos del año pasado (el 71% de las ayudas a domicilio

y el 33% de las Ayudas de Emergencia Social se incrementaron en 2025), entre otras medidas, la partida para la igualdad aumentará de 8.000 a 20.000 euros, y se pretende reforzar el exitoso programa Burulogy, puesto en marcha para impulsar la salud y la autonomía al frente de nuestros mayores, aumentando el gasto de 12.000 a 20.000 euros. "Conscientes de la necesidad de cuidar las infraestructuras del pueblo y de construir nuevas adaptadas a las necesidades de la ciudadanía, tenemos muy claro también que la cultura y la acción social son las herramientas más potentes con las que contamos para avanzar en el bienestar de la ciudadanía y para unir y fortalecer a la comunidad mendaresa", ha señalado el alcalde. "Y en ello andamos a toda costa".



## **La Diputación avanza el proyecto del bidegorri entre Altzola y Mendaro**

*El departamento de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial trabaja ya en el diseño de un itinerario ciclista y peatonal de 1,7 kilómetros por el espacio intermedio entre la N-634 y la AP-8, con una anchura de tres metros*

El diputado de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial, Félix Urkola, mantuvo una reunión informativa con la alcaldesa de Elgoibar, Maialen Gurrutxaga, y el alcalde de Mendaro, Enez Ezenarro, para trasladarles los avances del proyecto del bidegorri Altzola–Mendaro y compartir cómo plantea el departamento el futuro trazado de este itinerario ciclista y peatonal entre ambos municipios.

Durante el encuentro, Urkola explicó que el departamento ya está trabajando en el proyecto y que, próximamente, se procederá a la redacción del documento técnico en el que se concretarán las soluciones constructivas y los distintos encajes del trazado.

Se contempla que el trazado de la vía ciclista y peatonal discurra principalmente entre la carretera N-634 y la autopista AP-8, en el espacio intermedio entre ambas vías. El itinerario tendrá una longitud aproximada de 1,7 kilómetros y una anchura de tres metros, lo que permitirá un uso cómodo tanto para personas peatones como para ciclistas.

Urkola detalló a los responsables municipales algunos de los principales aspectos que se están analizando en esta fase inicial, como el encaje del trazado en la entrada del

barrio de Alzola, la definición de puntos seguros para el cruce de la carretera y la conexión final en Elgoibar con el antiguo trazado del tren.

El diputado destacó que este proyecto se enmarca en la estrategia de la Diputación Foral de Gipuzkoa para extender y consolidar la red de bidegorris del territorio, conectando municipios y facilitando desplazamientos cotidianos más saludables y sostenibles. Asimismo, puso en valor la colaboración con los ayuntamientos de Elgoibar y Mendaro para avanzar de manera coordinada.

### **Paradas de autobús**

En este encuentro también se habló de dos actuaciones que el Departamento de Infraestructuras Viarias y Estrategia Territorial pretende llevar a cabo próximamente para la mejora y adecuación de dos puntos donde se ubican paradas de autobús. Una en Elgoibar en Deba Kalea (Mupem) y otra en Mendaro a la altura de Azpilgoeta. De este modo se pretende mejorar el acceso peatonal seguro a las paradas, así como la habilitación del propio espacio de espera como un espacio seguro en torno a la carretera.



## **Balance de los actos de vandalismo que el pueblo de Mendaro sufrió en 2025**

*En total, fueron 14 actos de vandalismo en el año 2025*

Este es el balance de los actos de vandalismo que el pueblo de Mendaro sufrió en 2025:

- Manipular y estropear la cerradura para hacer reservas del pádel y del frontón (2 veces)**
- Agujeros en las pasarelas de los ascensores del hospital (2 veces)**
- Romper la fuente del parque de la Trinidad**
- Romper la barandilla del ascensor**
- Romper la puerta junto al ayuntamiento**
- Dañar el bolardo junto al ayuntamiento**
- Dejar basura tirada en el soportal de la iglesia de la Trinidad**
- Romper las luces de Navidad del arbolado**
- Tirar un árbol en Herriko Enparantza**
- Romper un baño del patio de la ikastola**

**-Romper un secamanos de los vestuarios del frontón**

**-Romper una barandilla del frontón**

**En total, fueron 14 actos de vandalismo en el año 2025.**

El Ayuntamiento de Mendaro quiere mostrar la condena más firme frente a quienes destrozan de esta manera los recursos de todos. No se pueden aceptar bajo ningún concepto comportamientos de este tipo.

No tiene ningún sentido tratar así infraestructuras que se pagan con el dinero de todos los ciudadanos y que son para el beneficio común.

El Ayuntamiento de Mendaro hace un llamamiento a los vecinos para que cuidemos entre todos el patrimonio común y para rechazar estas conductas antisociales.

## Información general y plazos para solicitar las Ayudas de Emergencia Social

*El objetivo de estas ayudas es prevenir, paliar o evitar situaciones de vulnerabilidad social*

Las **Ayudas de Emergencia Social (AES)** son prestaciones económicas puntuales destinadas a apoyar a personas y familias que no disponen de recursos suficientes para hacer frente a gastos específicos (ordinarios o extraordinarios) que pueden provocar o agravar una situación de exclusión social.

### Objetivo principal

El objetivo de estas ayudas es **prevenir, paliar o evitar situaciones de vulnerabilidad social**, como dificultades para pagar el alquiler, los gastos energéticos, la atención sanitaria u otras necesidades básicas que no puedan cubrirse con los recursos disponibles.

### Características generales

Son **prestaciones económicas no periódicas** (no se conceden de forma mensual y continuada).

Están dirigidas a **personas o unidades de convivencia con recursos económicos insuficientes**.

Se conceden en función de **criterios sociales y económicos**, que son valorados por los **servicios sociales competentes** de cada municipio o territorio.

### Quién puede solicitarlas

Con carácter general, pueden solicitarlas personas que:

Estén **empadronadas y residan en el municipio** (durante el período mínimo establecido).

Formen parte de una **unidad de convivencia independiente**.

No dispongan de recursos suficientes para afrontar gastos urgentes o básicos.

Estas ayudas **no constituyen un derecho automático**, sino que se conceden en función de las circunstancias personales y de la **valoración social realizada por la administración pública competente**.

### FECHAS DE PRESENTACION DE SOLICITUDES

<b>1. 1. TRIMESTRE</b>	<b>2026/02/02 - 2026/02/28</b>
<b>2. 2. TRIMESTRE</b>	<b>2026/05/04 - 2026/05/09</b>
<b>3. 3. TRIMESTRE</b>	<b>2026/07/13 - 2026/08/14</b>
<b>4. 4. TRIMESTRE</b>	<b>2026/11/02 - 2026/11/30</b>



## La primera edición del ciclo **Zinema euskaraz** comenzó con la proyección de la película “*Barrakudaren altxorra*”

*El objetivo del ciclo **Zinema euskaraz** es ampliar la oferta dirigida a niños, niñas y jóvenes*


La asociación de padres Arno, en colaboración con el Ayuntamiento de Mendaro, ha organizado por primera vez un ciclo de cine en euskera; durante la temporada de invierno, los domingos, se podrán ver otras cuatro películas en el espacio cultural San Agustín.

El 25 de enero dio comienzo el ciclo de cine con la película “*Barrakudaren altxorra*” en el espacio cultural San Agustín.

El objetivo del ciclo **Zinema euskaraz** es ampliar la oferta dirigida a niños, niñas y jóvenes. De este modo, se han programado tres películas infantiles y otras dos para todos los públicos.

La entrada al cine será gratuita para todo el público, ya que los organizadores no quieren que el dinero sea un obstáculo para poder disfrutar del cine en euskera.

Las siguientes 4 películas serán las siguientes: “*Irabazi arte!*” (primer capítulo de la 5.<sup>a</sup> temporada), el 1 de febrero; “*Hartz-atzapar kanpamendua*”, el 8 de febrero; “*Lagunak erreskatera*”, el 15 de febrero; y “*Minecraft*”, el 22 de febrero.



## **El 29 de diciembre se puso en marcha el nuevo horario de la entrada de vehículos a Herriko Enparantza**

*Se realizará una prueba piloto de seis meses para ver las ventajas e inconvenientes que puede tener el nuevo horario y tras ese plazo se tomará la decisión definitiva*

Tal y como se explicó en la reunión informativa celebrada el 26 de noviembre en el ayuntamiento, la entrada de vehículos a la Herriko Enparantza tendrá un nuevo horario. El nuevo horario se puso en marcha el 29 de diciembre.

Entre las 8:00 y las 12:30 horas de los días laborables el acceso de los vehículos a la plaza estará abierto de 8:00 a 12:30 y cerrado fuera de ese horario. En los días festivos, el acceso permanecerá cerrado durante todo el día.

Se realizará una prueba piloto de seis meses para ver las ventajas e inconvenientes que puede tener el nuevo horario y tras ese plazo se tomará la decisión definitiva.

Esta medida se recoge en el Plan participativo de espacios públicos de Mendaro, Kaleak DenONAK, realizado entre mayo y noviembre de 2024. Con la reducción del tránsito rodado se pretende convertir la Herriko Enparantza en un lugar más tranquilo y seguro para todos, como espacio clave para el desarrollo y fortalecimiento de la vida social de Mendaro.



## **El Ayuntamiento de Mendaro ha retirado algunas rocas que se encontraban en la cuesta de Intxaurbakoitza**


*Con el objetivo de evitar estas situaciones de riesgo de cara al futuro, el Ayuntamiento de Mendaro solicitará un estudio geotécnico de la zona para garantizar la seguridad de la población en la zona*

En los últimos años, con el viento, se han producido caídas de ramas de árboles que colgaban de la autopista AP-8, generando situaciones de alto riesgo en una de las principales entradas al barrio de Azpilgoeta por carretera.

El año pasado el Ayuntamiento de Mendaro, con la colaboración de la Diputación Foral de Gipuzkoa, taló varias ramas de árboles en mal estado en la zona.

Pero el hecho de que los fuertes vientos hayan movido también las raíces de los árboles y las rocas que los rodean ha animado al Ayuntamiento de Mendaro a realizar nuevos trabajos.

Con el objetivo de evitar estas situaciones de riesgo de cara al futuro, el Ayuntamiento de Mendaro solicitará un estudio geotécnico de la zona para garantizar la seguridad de la población en la zona.



## **Cruz Roja Gurutze Gorria**

### **El Ayuntamiento de Mendaro firma un convenio de colaboración con Cruz Roja de Deba para ofrecer servicios de atención e información a la ciudadanía**

*El servicio se ofrecerá el primer lunes de cada mes, de 09:15 a 13:00, en el Ayuntamiento de Mendaro en una oficina de la 3ª planta*

El Ayuntamiento de Mendaro y Cruz Roja en Deba han firmado un convenio de colaboración para ofrecer en el municipio servicios de atención e información, así como apoyo a personas en situación de vulnerabilidad.

El servicio se ofrecerá el primer lunes de cada mes, de 09:15 a 13:00, en el Ayuntamiento de Mendaro en una oficina de la 3ª planta.

Servicios incluidos:

- Atención a necesidades básicas (tarjetas/cupones para alimentación e higiene, tarjetas de transporte, apoyo especial a la infancia).
- Pago de suministros del hogar y asesoramiento energético.
- Apoyo y derivación para la búsqueda de empleo.
- Préstamo de productos de apoyo (sillas de ruedas, muletas, taca-tacas...).
- Talleres de formación y sensibilización (energía, alimentación, salud emocional...).

El Ayuntamiento cederá el espacio y aportará una subvención anual de 500 euros a Cruz Roja.